

22

GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIA
FESTIVAL DE CINE Y DERECHOS HUMANOS
DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN / 2025

4 - 11 apirila / abril



PROGRAMAZIOA / PROGRAMACIÓN

MARTXOA / MARZO

31	astelehena lunes	19:00	MAHAI-INGURUA / MESA REDONDA Gaza bajo los escombros. Crónica de un horror <i>librea gonbidapenarekin / gratis con invitación</i>	VEA CLUB
-----------	---------------------	-------	--	-------------

APIRILA / ABRIL

1	asteartea martes	19:00	LAS CHICAS DE LA ESTACIÓN <i>librea gonbidapenarekin / gratis con invitación</i>	AZ
2	asteazkena miércoles	19:00	NACIDO EN GAZA <i>librea gonbidapenarekin / gratis con invitación</i>	AZ
		19:30	ANTZERKIA / TEATRO Interview – Urez eta hondarrez	VEA CLUB
4	ostirala viernes	16:30	TRATADO DE INVISIBILIDAD	VEA
		20:00	INAUGURAZIOA / INAUGURACIÓN FAISAIEN IRLA (LA ISLA DE LOS FAISANES)	VEA
5	larunbata sábado	12:00	MAHAI-INGURUA / MESA REDONDA Narratibak ehunduz / Entretejiendo narrativas <i>librea gonbidapenarekin / gratis con invitación</i>	VEA CLUB
		16:30	WAVES	VEA
		17:00	Nazioarteko film laburren maratonia Maratón de cortometrajes internacionales	AZ
		20:00	EMPODERÍO	VEA
6	igandea domingo	12:00	HAURRENTZAKO ZINEMA / CINE INFANTIL AZERIK ETA ERBIK BASOA SALBATZEN DUTE <i>librea gonbidapenarekin / gratis con invitación</i>	VEA
		16:30	THE NEW YEAR THAT NEVER CAME	VEA
		17:00	Euskal film laburren maratonia Maratón de cortometrajes vascos	AZ
		20:00	FOLLOWING HARRY	VEA
7	astelehena lunes	16:30	THE LEGEND OF THE VAGABOND QUEEN OF LAGOS	VEA
		19:00	PATRULLAJE	VEA
8	asteartea martes	16:30	PATRICE: THE MOVIE	VEA
		19:00	ÉRAMOS TAN FLACOS	VEA
9	asteazkena miércoles	16:30	HOME GAME	VEA
		19:00	LA HISTORIA DE SOULEYMANE	VEA
		19:00	ERNEST COLE: LOST AND FOUND	TBK
10	osteguna jueves	16:30	ALMA DEL DESIERTO	VEA
		19:00	FLYING HANDS	VEA
		19:00	HENRY FONDA FOR PRESIDENT	TBK
11	ostirala viernes	16:30	VARADOS <i>librea gonbidapenarekin / gratis con invitación</i>	VEA
		20:00	BUKAERA / CLAUSURA GOOD ONE	VEA
12	larunbata sábado	19:00	RIEFENSTAHL	TBK

Sarrerak / Entradas: **5 €**

Tabakalera: **4 €**

Interview – Urez eta hondarrez: **10 €**

Gonbidapenak / Invitaciones:

Victoria Eugenia Antzokia & Antzoki Zaharra

www.zinemaetagizaeskubideak.eus

VEA	Victoria Eugenia Antzokia
AZ	Antzoki Zaharra / Teatro Principal
TBK	Tabakalera

▲ Pertsona gorrentzat azpititulu egokituak dituzten filmak eta zeinu hizkuntza zerbitzua duten solasaldiak
Sesiones con subtítulos accesibles para personas sordas y coloquios con intérprete de lengua de signos

● Saioak audiodeskripzioarekin / Sesiones con audiodescripción (**AudescMobile**)

AURKEZPENA

Aurten ere, Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldia gaurkotasunari lotuta itzuli da, bizi dugun mundu konplexua erakusten duten hainbat istorio kontatzeko prest. Hartara, gizakiak errukirik gabe erasotako gure planeta honetan, oraindik ere indarrean jarraitzen duten gatazka beliko ugariak jaso dira bertan, tartean Gaza edo Ukrainakoa.

Zinemaldi hau errealitate erdigarriak erakusteko itzuli da Victoria Eugenia Antzokira, Antzoki Zaharrera, eta hiriko beste gun batzuetara. Bertan jasotako fikzioko filmak eta dokumentalak iraganera bidaiatzen dira oraina ulertzeko; itxaropen eta elkertasun mezuak helarazten dituzte, eta egungo errealitate latzak erakusten dituzte, ezagutzera eman beharrekoak.

Aurten, zinemaldiaren goiburu izateko aukeratu den irudiak etorkizuna mehatxatzen jarraitzen duen klima aldaketaz hitz egiten du, ikusita hainbat gobernu eta enpresek halakorik dagoela ukatzen dutela, eta arazoari irimotasunez eta modu koordinatu batean aurre egiteko ezintasunaren aurrean. Kartelak itsas mailaren goranzko joera geldiezina erakusten du, ohartarazteko fenomeno horrek pertsona migratzaile klimatikoak sortu dituela, beren etxeak atzean utzi behar izaten dituztenak bertan bizitzen jarraitzeak dakarren arriskuagatik.

Beti bezala, uste dugu zinema ahalmen handiko tresna unibertsala dela, izaten ari diren edo izango diren gertaerak kontatzeko. Hala, irudien ahalmena aldarrikatzen dugu, kontzientziatzeko, zirrara sorrarazteko, baita mundua aldatzeko ere. Salatzeko, oihu egiteko, lan egiteko egunero mehatxatzen diren eta emantzat hartu behar ez diren giza eskubideen alde. Zinema eta argazkilaritza, marrazkia eta antzerkia izango ditugu edizio honetan, baita jorratutako gaietan aditu eta espezialistekin eta zinegileekin garatuko diren debateak ere.

Donostiatik uste baitugu zazpigarren arteak mundua hobeto ezagutzen lagundu ahal digula, leihobat irekitzen dielako herritarrei, guztion artean zinemaldi hau beharrezkoa ez izatea lortzeko. Posible baita mundu berri bat bakean, mundu solidario eta bidezkoago bat.

PRESENTACIÓN

El Festival de Cine y Derechos Humanos de Donostia / San Sebastián vuelve otro año más pegado a la actualidad, dispuesto a contar un puñado de historias que muestran la realidad del complejo mundo en que vivimos, donde infinidad de conflictos bélicos siguen en marcha por toda la superficie terrestre, como en Gaza o Ucrania, en un planeta que sigue siendo maltratado sin piedad por el ser humano.

Vuelven a los teatros Victoria Eugenia y Principal y a otros espacios de la ciudad historias emocionantes y a veces desgarradoras, viajes al pasado para entender el presente, mensajes de esperanza y solidaridad, películas de ficción y documentales que muestran realidades que están ahí y que es preciso dar a conocer.

Este año la imagen elegida para encabezar el festival habla del cambio climático que sigue amenazando el futuro, por la simple negación de su existencia por parte de gobiernos y empresas o por la imposibilidad de enfrentarse a él de una forma contundente y coordinada. El cartel muestra el imparable crecimiento del nivel de mares, que ya comienza a producir personas migrantes climáticas que deben abandonar sus hogares ante la imposibilidad de seguir viviendo allí.

Como siempre, pensamos que el cine es una herramienta poderosa y universal para compartir un puñado de historias que suceden o han sucedido. Reinvidicamos el poder de las imágenes para concienciar, conmover, incluso para cambiar el mundo. Para denunciar, gritar, trabajar en favor de unos derechos humanos que no hay que dar por supuestos y que se ven amenazados todos los días. El cine y la fotografía, el dibujo, el teatro, siempre el debate con cineastas y especialistas en las temáticas que se abordarán en esta edición.

Porque desde Donostia creemos que el llamado séptimo arte puede contribuir a un mejor conocimiento del mundo, abrir una ventana a la ciudadanía para que entre todas y todos podamos conseguir que este festival no sea necesario. Un nuevo mundo en paz, más justo y solidario es posible.

Eneko Goia Laso
Donostiako Alkatea

asteartea / martes > apirilak 1 abril / 19:00

Antzoki Zaharra / Teatro Principal

librea gonbidapenarekin / gratis con invitación

LAS CHICAS DE LA ESTACIÓN (2024)

Juana Macías. Espainia / España. 117 min

🔊 [gaztelania](#)



Jara, Álex eta Miranda adingabeen zentro batean hazitako hiru neska dira, maitasuna zer den jakin gabe. Jararen urtebetetzea da eta hirurek ospatu nahi dute beren *trap queen* gustukoenaren kontzertuan. Dirua behar dute horretarako, baina ez dute aukera handirik lortzeko. Haiek baino neska zaharrago bat ezagutzen dute, ordea. Helduekin hitzorduak lortzen aritzen da hura autobus geltokiko komunetan, eta aspaldian ari zaie eskaintzen diru pittin bat erraz lortzeko modua.

Jara, Álex y Miranda son tres chicas que han crecido en un centro de menores sin saber qué es el amor. Es el cumpleaños de Jara y las tres quieren celebrarlo en el concierto de su *trap queen* preferida. Necesitan dinero y no tienen muchas opciones para conseguirlo. Pero conocen a una chica algo mayor que se dedica a conseguir citas con adultos en los baños de la estación de autobuses, y que hace tiempo les viene ofreciendo ganar algo de dinero fácil.

SOLASALDIA / COLOQUIO

Beatriz Teresa Benavente Nitto: Psikologian doktorea, haur eta nerabeen sexu-esplotazioan ikertzaile espezializatua / *Doctora en Psicología, investigadora especializada en explotación sexual infantil y adolescente*

asteazkena / miércoles > apirilak 2 abril / 19:00

Antzoki Zaharra / Teatro Principal

librea gonbidapenarekin / gratis con invitación

NACIDO EN GAZA (2014)

Hernán Zin. Espainia / España. 72 min

🔊 [arabiera](#) 🗲 [gaztelania](#)



2014ko uztaila eta abuztua bitartean Gazako zerrendaren aurka Israelek egindako erasoaldian filmatutako dokumentala. Filmak hamar neska-mutili jarraitzen die, eta bertan kontatzen dute nola garatzen den beren eguneroko bizitza bonben artean eta nola ahalegintzen diren gerraren izugarrikeria gainditzeko eta euren bizitzetara normaltasun ukitu bat ematen. Hala, haiek dira israeldar ofentsibak hildako 507 haurren eta 3.000 zauritu baino gehiagoren bozeramaileak.

Documental rodado durante el ataque israelí contra la franja de Gaza entre julio y agosto de 2014. La película sigue a diez niños y niñas que cuentan cómo es su vida diaria entre las bombas y cómo luchan para superar el horror de la guerra y darle un toque de normalidad a sus vidas. Ellos y ellas son los portavoces de los 507 niños y niñas muertos y los más de 3.000 heridos que dejó esta ofensiva israelí.

SOLASALDIA / COLOQUIO

Rosabel Argote: Kazetaria eta ikertzaile soziala / *Periodista e investigadora social*

TRATADO DE INVISIBILIDAD (2024)

Luciana Kaplan. Mexiko / México. 85 min

🔊 *gaztelania / castellano*

Nortzuek garbitzen dute zure hiria? Dokumental honek Mexiko Hirian espazio publikoak garbitzen dituzten emakumeen bizitzak eta esperientziak kontatzen ditu, lan prekarietatearen eta ikusezin sentitzearen inguruko erretratu intimoa bat eraikita. Horretarako, dokumentalaren eta fikzioaren arteko baliabide narratiboak nahasten dira, azpikontratazioaren eskemak erasandako ahots eta bizimoduaren mosaiko bat sortzeko.



¿Quiénes limpian tu ciudad? Este documental narra las vidas y experiencias de mujeres que limpian espacios públicos en la Ciudad de México, construyendo un retrato íntimo alrededor de la precariedad laboral y el sentimiento de invisibilidad, mezclando diversas herramientas narrativas que rondan entre el documental y la ficción, creando un mosaico de voces y formas de vida afectadas por el esquema de subcontratación.

GARBIKETAKO LANGILEAK, PREKARIETATEAREN ETA IKUSEZINTASUNAREN ARTEAN

Munduko biztanleriaren % 56 inguru hirietan bizi da. Hiriak garbi mantentzea betebeharrak bat da, estetika ez ezik, osasuna eta jasangarritasuna ere zaintzeko. Egunero, milaka emakume lan egiten dute hori lortzeko, goizaldetik eguna argitzen den arte luzatzen diren lanaldi amaigabeetan, eta hutsaren hurrengo soldatekin zenbaitetan. Haien lan-baldintzek, gainera, oso errealitate bidegabeak ezkutatzen dituzte askotan. Eta haien lan-prekarietatea bizi duten egoeraren alderik ikusgarriena baino ez da. Horren atzetik, beste alde ikusezin batzuk daude, esaterako edadismoa, pobrezia, abusuak edo sexu-indarkeriak, muturreko kalteberatasun-egoeran murgiltzen dituztenak emakume horiek. Ondorioz, espazio publikoak garbi mantentzeko haiek egiten duten lana ezinbestekoa bada ere, gutxietsi egiten da ironikoki, eta haien presentzia, etengabea izanda ere, ikusezin bihurtu da. Hor daude, funtsezko lana egiten dute, baina ez ditugu ikusten.

Ikusezintasun hori klasismoan eta genero-desberdintasunean sakon sustraitua eta globala da. Izan ere, urruneko lekuetan ez ezik, esaterako Mexiko DFn, hemen ere da nabaria garbiketaren sektoreko emakumeek bizi duten egoera. Espainiako patronalek eskueran dituzten datuen arabera, garbiketaren sektore feminizatu eta prekarizatuak 500.000 langile baino gehiago ditu, eta horietatik % 74 emakumeak dira.

Zoritxarrez, emakumeen eskubideak eta lan-eskubideak gero eta higatuagoak dauden testuinguru batean, eta ideologia kontserbadore eta ultraeskuindarren goranzko joera gero eta nabariagoa dela kontuan hartuta, eskubideen berdintasunaren eta halako enpleguen ikusgarritasunaren alde lan egiten duten politikak oso bide ziurgabea dute aurrean.

TRABAJADORAS DE LA LIMPIEZA, ENTRE LA PRECARIEDAD Y LA INVISIBILIDAD

Alrededor del 56% de la población mundial vive en ciudades. Mantenerlas limpias es una obligación no solo estética, sino también de salud y de sostenibilidad. Miles de mujeres trabajan afanosamente todos los días para conseguirlo, en jornadas interminables que se alargan entre la madrugada y el amanecer, con unos salarios a veces irrisorios. Sus condiciones, además, esconden a menudo realidades tremendamente injustas. Y su precariedad laboral es solo la capa más visible de su situación. Bajo ella, otras capas invisibles, como el edadismo, la pobreza, los abusos o incluso la violencia sexual, sumergen a estas mujeres en un espacio de vulnerabilidad extrema. Como consecuencia, a pesar de su papel crucial en el mantenimiento de los espacios públicos limpios, su labor es irónicamente menospreciada, y su presencia, aunque constante, invisibilizada. Están ahí, realizan una labor esencial, pero no las vemos.

Esta invisibilidad, con profundas raíces clasistas y de género, es global. No solo caracteriza a las mujeres del sector de la limpieza en lugares geográficamente lejanos, como México DF, sino también aquí. Según datos manejados por las patronales en España, el sector de la limpieza, altamente feminizado y precarizado, cuenta con más de 500.000 personas empleadas, de las cuales el 74% son mujeres.

Desgraciadamente, en un contexto de desgaste progresivo de los derechos de las mujeres y de los derechos laborales, y con un avance cada vez mayor de las ideologías conservadoras y de ultraderecha, las políticas que apuntan hacia la igualdad de derechos y la visibilidad de sus empleos tienen por delante un camino tremendamente incierto.

ostirala / viernes > apirilak 4 abril / 20:00

Victoria Eugenia Antzokia

INAUGURAZIOA / INAUGURACIÓN

FAISAIEN IRLA LA ISLA DE LOS FAISANES (2024)

Asier Urbietta. Espainia-Frantzia / España-Francia. 98 min

🔊 euskara, frantsesa 🇫🇷 gaztelania

Faisaien Irla munduko kondominio txikiena da, beraz, burujabetza partekatua dauka. Urte erdia Espainiar estatuari dagokio eta beste erdia frantsesari. Laida eta Sambou, irla paretik paseatzen doaz, bi pertsona ikusten dituztenean ibaia igerian zeharkatu ezinik. Egun batzuk beranduago, hilotz bat agertzen da irlan, estatu batek besteari burujabetza ematen dion ekitaldian. Ze estatu arduratuko da hilotzarekin?

BIDASOAKO MUGA MUGARIK GABEKO EUROPAN

Zer da muga bat? Bi herrialde bereizten dituen marra imaginario bat? Gizakiak sorturiko fikzio bat errealitate bilakatu dena?

Bidasoak modu naturalean muga bat sortzen du ibaiaren alde bakoitzera. Politikoei muga horri beste bat batu diote, bi estaturen artekoa. Honek ondorio tragikoak suposatzen ditu Europa iparralderako bidean muga gurutzatu behar duten pertsonentzat. Gizakia nomada jaio zen, toki batetik bestera igarotzen zuen denbora bizi irauteko. Gaur egun herrialde batetik bestera mugitzen jarraitzen dugu arrazoi berdinengatik. Bidasoako muga oso garrantzitsua bilakatu da Afrikatik Europara transitoan dabiltzan pertsonentzat. Hau baita Europa barruan aurkitzen duten lehenengo muga, mugarik gabeko European.

Poliziak ez die Bidasoa zeharkatzen uzten eta pertsona asko uste baino arriskutsuagoa den ibaitik igaro behar izaten dute. Azken urtetan, bederatzik pertsona hil dira Bidasoako mugan. Bost itota, hiru trenak harrapatuta eta bat urkatuta. Faisaien Irla Bidasoa ibaian sortzen da eta munduko kondominio txikiena da. Beraz, sei hilabetez frantsesa da eta beste seiak espainola. Hutsik dagoen lur zati txiki bat, inoiz faisairik izan ez duena, muga konzeptuaren metafora aldrebes bat bilakatu da.

Asier Urbietta

SOLASALDIA / COLOQUIO

Asier Urbietta: Filmaren zuzendaria / *Director de la película*
Aktoreak / *Intérpretes*



© Nicolás de Assas

La Isla de los Faisanes es el condominio más pequeño del mundo. La mitad del año pertenece al Estado español y la otra mitad al francés. Emerge en mitad del río Bidasoa, una frontera natural que separa ambos países. Laida y Sambou, una pareja local, pasea frente a la isla. De repente ven a dos personas cruzando el río a nado para intentar llegar al otro lado. Días después un cadáver aparece durante el intercambio de soberanía de la isla. ¿Quién se hace cargo?

LA FRONTERA DEL BIDASOA EN LA EUROPA SIN FRONTERAS

¿Qué es una frontera? ¿Una línea imaginaria que separa dos países? ¿Una ficción creada por el ser humano que se ha convertido en realidad?

El Bidasoa crea de forma natural una frontera a cada orilla del río. A esa división terrestre los políticos le han sumado otra, la creada para separar dos estados. Esto tiene consecuencias trágicas para las personas que necesitan cruzar la frontera en dirección al norte de Europa. El ser humano nació nómada, se desplazaba de un lugar a otro para sobrevivir. Hoy seguimos moviéndonos entre países por las mismas razones. El río Bidasoa se ha convertido en un paso muy importante para las personas en tránsito de África al viejo continente. Porque es la primera frontera que encuentran dentro de la Europa sin fronteras.

La policía no deja cruzar el Bidasoa a las personas que están en tránsito, por lo que se ven abocadas a hacerlo por un río que es más peligroso de lo que parece. En los últimos años, nueve personas han fallecido en la frontera del Bidasoa. Cinco ahogados, tres arrollados por el tren y uno ahorcado. La Isla de los Faisanes emerge del río Bidasoa y es el condominio más pequeño del mundo. Es decir, durante seis meses es francesa y los otros seis meses española. Un trozo de tierra inhabitado, donde nunca ha habido faisanes. Una metáfora sobre el absurdo de las fronteras.

WAVES (Vlny, 2024)

Jiří Mádl. Txekiako Errepublika-Eslovakia / República Checa-Eslovaquia. 131 min

🔊 txekiera, eslovakiera, errusiera, frantsesa, alemana, italiera

🔇 euskara, gaztelania

Praga, 1968. Tomáš eta Pavel anaiak dira eta familia gabe hazten ari dira. Zaharrena, Tomáš, garaiko Txekoslovakia goibelean atentzioa ez ematen saiatzen da. Ikaslea du anaia txikia, hezigaitzagoa izaeraz; Milan Weiner zuzendari duen Txekoslovakiako Irratiko nazioarteko emisioen jarraitzaile porrokatua da bera, Tomášek bertan lan egiten duela jakin gabe. Benetako gertaera batean oinarrituta, kazetari talde baten berri ematen du film honek; Pragako Udaberrian herrialdean gertatzen ari zenaz askatasunez informatzen jarraitu nahi izan zuten haiek.

KAZETARITZA AUSARTA PRAGAKO UDABERRIAN

1968ko abuztuaren 21eko goizaldean, tropa sobietarrek Txekoslovakia inbaditu zuten. Alexander Dubček herrialdean ezarritako zortzi hilabeteko amets erreformistei, askatasunari eta "giza aurpegidun sozialismoari" azkena ematea zen haien helburua.

Urte hartako urtarrilean, Txekoslovakiako Alderdi Komunistaren lidergoa hartu zuen Dubček, eta haren ustez posible zen herrialdean, bloke komunistaren barruan, askatasun handiagoa izatea bai politikan bai prentsan. Baina Sobietar Batasunak eta Varsoviako Itunaren aliatuek mehatxu gisa ikusi zuten mugimendu erreformista hura. Azkenean, Dubček boteretik kendu eta azkena eman zioten Pragako Udaberria deitutakoari, erregimen zorrotzagoa ezarrita.

Abuztuaren 21eko egun haren atarikoen eta azken hondarren kontakizun historiko honetan, protagonismo berezia hartzen du Txekoslovakiako Irratiko kazetari talde batek; azken momentura arte eutsi zioten lanari herriaren informazio-eskubidea defendatzen. Milan Weiner, Věra Štvořicková eta Luboš Dobrovský dira izenetako batzuk.

Zentsura mehatxuei aurre egiten hilabeteak eman ondoren, inbasioaren egun hartan lanean jarraitu zuten Pragako irratiari, tanke eta indar sobietarrek kanporatu zituzten arte. Ihes egitea lortu zutenak leku sekretuetatik emititzen hasi ziren, ekipo mugikor klandestinoak eta frekuentzia alternatiboak erabili. Moskuk bere narratiba ofiziala inposatzeko egin zituen ahaleginei desafio eginez, haien ahotsa ez isilaraztea lortu zuten. Hala, tropen aurrerapenen berri eman zieten herritarrei, eta baretasunerako deia helarazi.

Hamarkada batzuk geroago, gertakari hura kazetaritzaren erresistentziaren eta adierazpen-askatasunaren aldeko borroka baketsuaren adibide gisa gogoratzen da oraindik ere.



© Dawson Films

Praga, 1968. Tomáš y Pavel son dos hermanos que crecen sin familia. El mayor, Tomáš, intenta no llamar la atención en la gris Checoslovaquia de la época, mientras que su hermano pequeño, estudiante, tiene un carácter más rebelde y admira las emisiones de la redacción internacional de la Radio Checoslovaca, dirigida por Milan Weiner, sin saber que Tomáš trabaja allí. Basada en la historia real de un grupo de periodistas que durante la Primavera de Praga intentaron seguir informando con libertad de lo que sucedía en el país.

PERIODISMO VALIENTE EN LA PRIMAVERA DE PRAGA

En la madrugada del 21 de agosto de 1968, las tropas soviéticas invadieron Checoslovaquia. Su objetivo era poner fin a los ocho meses de sueños reformistas, libertad y "socialismo con rostro humano" que Alexander Dubček había instaurado en el país.

Dubček, que había asumido el liderazgo del Partido Comunista de Checoslovaquia en enero de ese año, había creído que, dentro del bloque comunista, era posible un país con más libertad política y de prensa. Pero la Unión Soviética y sus aliados del Pacto de Varsovia vieron su movimiento reformista como una amenaza. Finalmente le derrocaron y acabaron con la llamada Primavera de Praga, reinstaurando un régimen más estricto.

En el relato histórico de los prolegómenos y postrimerías de ese 21 de agosto, tienen especial protagonismo un grupo de periodistas de Radio Checoslovaca, que defendieron hasta el último momento el derecho a la información de su pueblo. Milan Weiner, Věra Štvořicková y Luboš Dobrovský son algunos nombres.

Tras meses enfrentándose a las amenazas de censura, aquel día de la invasión resistieron en la emisora de Praga hasta que los tanques y fuerzas soviéticas les desalojaron. Quienes lograron escapar comenzaron a retransmitir desde ubicaciones secretas, utilizando equipos móviles clandestinos y frecuencias alternativas. Desafiando los intentos de Moscú por imponer su narrativa oficial, consiguieron que su voz no se silenciara, no dejando de informar de los avances de las tropas a la población, e instándole a mantener la calma.

Décadas después, este episodio sigue siendo recordado como un ejemplo de resistencia desde el periodismo y de lucha pacífica por la libertad de expresión.

larunbata / sábado > apirilak 5 abril / 17:00

Antzoki Zaharra / Teatro Principal

Amarela (2024)

André Hayato Saito. Brasil. 15 min

🔊 portuguesa 🌐 gaztelania, euskara



Brasilen eta Frantziaren arteko Munduko Txapelketako finalaren egunean, familia tradizioak baztertzen dituen nerabe japoniar-brasildar batek ikusezina dirudien indarkeria bizi du, eta emozioen itsaso mingarri batean murgiltzen da.

El día de la final del Mundial entre Brasil y Francia, una adolescente japonés-brasileña que rechaza sus tradiciones familiares vive una violencia que parece invisible y se sumerge en un doloroso mar de emociones.

The Deer's Tooth (2024)

Saif Hammash. Palestina. 16 min

🔊 arabiera 🌐 gaztelania, euskara



Filmak errefuxiatuen esparru bateko gazte bat du ardatz. Bidaia arriskutsu batean murgilduko da hura, bere anaia txikiaren nahia betetzeko: bere esne-hortza itsasora botatzea.

La película se centra en un joven de un campo de personas refugiadas que se embarca en un peligroso viaje para cumplir el deseo de su hermano pequeño: arrojar su diente de leche al mar.

NAZIOARTEKO FILM LABURREN MARATOIA MARATÓN CORTOS INTERNACIONALES (169 min)

Black Scarf (2024)

Ali Reza Shah Hosseini. Iran / Irán. 15 min

🔊 persiera 🌐 gaztelania, euskara



Ia hutsik dagoen herri txiki bateko irakasle baten azken lanegunean, ikasleek zerbait eskatzen diote. Dena aldatuko du horrek.

En el último día de trabajo de un profesor en un pequeño pueblo despoblado, sus alumnas le piden algo que lo cambia todo.

Donde se quejan los pinos (2024)

Ed Antoja. Espainia / España. 10 min

🌐 gaztelania



Komunitate landatar bat krimen baten aurrean esnatu da, basoaren erdian gertatua. Pixkanaka, aurretik gertatutako egoera batzuek erakutsiko dizkigute leku berean izan ziren gatazkak.

Una comunidad rural despierta ante la escena de un crimen en medio del bosque. Poco a poco, una serie de situaciones previas nos muestran varios conflictos que sucedieron en el mismo lugar.

Los guerreros del amor (2024)

Joaquín González Vaillant. Uruguai / Uruguay. 15 min

🔊 *hindi, ingelesa* 🗣️ *gaztelania, euskara*




Indian, tradizio kezkarri batek bizirik dirau: familiak onartutako norbaitekin ezkondu behar dute neska gazteek. Beste pertsona batekin maitemintzen direnek ohoreagatik hiltzeko arriskua dute. Orain badute norengana jo laguntza bila: Love Commandos.

En India, una tradición preocupante sobrevive: los jóvenes deben casarse con alguien aprobado por la familia. Quienes se enamoran de otra persona corren el riesgo de ser asesinados por honor. Ahora tienen a quién acudir en busca de ayuda: Love Commandos.

The Man Who Could Not Remain Silent (2024)

Nebojša Slijepčević. Eslovenia-Frantzia-Kroazia-Bulgaria / Eslovenia-Francia-Croacia-Bulgaria. 14 min

🔊 *kroaziera* 🗣️ *gaztelania, euskara*



Negu betean, indar paramilitarrek bidaiarien tren bat geldiarazten dute. Zibil errugabeak atxilotzen dituzten bitartean, 500 lagunetik gizon bat besterik ez da haiei aurre egitera ausartzen. Isilik geratu ezin izan zuen gizon baten benetako historia.

En pleno invierno, un tren de pasajeros es detenido por fuerzas paramilitares. Mientras arrestan a civiles inocentes, solo una persona de 500 se atreve a enfrentarse a ellos. Esta es la historia real de un hombre que no pudo permanecer en silencio.

Her Name Is Ida / Hun heter Ida (2024)

Oscar Bøe. Norvegia / Noruega. 15 min

🔊 *norvegiera* 🗣️ *gaztelania, euskara*



Irrikaz esperotako familiarteko pizza gau batean, Martinek zerbait iragarriko du, familiaren dinamikari desafio eginez. Gurasoak hasi dira ulertzen egia ezin dela onartu bakarria balitz bezala.

Durante una esperada noche de pizza en familia, Martin hace un anuncio que desafía la dinámica familiar. Sus padres empiezan a comprender que la verdad no puede ser aceptada como una sola.

Mariem (2025)

Javier Corcuera. Espainia / España. 15 min

🔊 *hassaniera* 🗣️ *gaztelania, euskara*



Mariem Hassan, errefuxiatu sahararra, konpositorea eta Mendebaldeko Saharako abeslari adierazgarriena zen. 2015ean hil zen, minbizi baten ondorioz. Hil aurretik, lurralde liberatuetara erretiratu zen, haurtzaroa igaro zuen lekura. Handik kontatu zigun bere historia eta abestu zuen azkeneko aldiz. Film honek testigantza hori eta bere artea jasotzen ditu.

Mariem Hassan, refugiada saharauí, compositora y la cantante más representativa del Sahara Occidental, falleció en 2015 como consecuencia de un cáncer. Poco antes de morir, se retiró a los territorios liberados, lugar donde pasó su infancia. Desde ese lugar nos contó su historia y cantó por última vez. Esta película recoge ese testimonio y su arte.

Sunny Life Farm (2024)

Ben Liam Jones. Erresuma Batua (Ingalaterra) / Reino Unido (Ingalaterra). 10 min

🔊 ingelesa, arabiera 🗣️ gaztelania, euskara



Supermerkatu nagusiak hornitzen dituen etxalde britainiar batean garatzen da trama. Nizar han dago giltzapetuta, esklabu bat bezala lanean. Zorrek jazarria, arriskuan ikusten du familiarekin elkartzeko bere ametsa, iritsiberri aldabera baten erantzule bihurtzen denean.

La trama se desarrolla en una granja británica que abastece a los principales supermercados. Allí Nizar permanece encerrado, trabajando como un esclavo. Acosado por las deudas, ve peligrar su sueño de reunirse con su familia cuando se convierte en responsable de un recién llegado inestable.

Solo Kim (2024)

Javier Prieto de Paula, Diego Herrero. Espainia / España. 20 min

🗣️ gaztelania



Rose Kim nerabe transgeneroa da. Irrikan egon arren, ez da oraindik halakotzat agertu, eta bere emakume gorputz natiboarekin moldatzen da. Beharbada, legez kanpo migratu duen herrialde batean bakarrik dagoelako.

Rose Kim es un adolescente transgénero. Aunque lo anhela, aún no lo ha exteriorizado y se desenvuelve con su cuerpo nativo de mujer. Quizá porque está solo en un país al que ha migrado ilegalmente.

Superbi (2024)

Nikola Brunelli. Italia. 16 min

🔊 italiana 🗣️ gaztelania, euskara



Ascoli Piceno dago Superbi, 1864tik hiriko oliba ascoliar ospetsuenak ekoizten dituen denda. Fulviok eraman du betidanik familiaren negozioa, baina interesa galdu du azkenaldian, eta kalitatea ere ez da lehen zena, nahiz eta bera ez litzatekeen inoiz halakorik onartzeko prest egongo.

En Ascoli Piceno se encuentra Superbi, una tienda que lleva produciendo las aceitunas ascolanas más famosas de la ciudad desde 1864. Fulvio siempre ha dirigido el negocio familiar, pero últimamente se ha cansado de él e incluso la calidad ya no es lo que era, aunque él nunca estaría dispuesto a admitirlo.

Waves / Vlny (2024)

Michael Carrington. Txekiar Errepublika / República Checa. 8 min



Olatuak itsasoan, haizeak belar goratuan edo zuhaitzen adarretan sortutako olatuak. Emozioen olatuak, leherketen talka olatuak, politikagintzaren harrokeriaren aurka agertutako pertsonen olatuak, oinaze olatuak, mugak zeharkatzen ari diren pertsonen olatuak, pasio eta alaitasun olatuak...

Olas en el mar, las olas formadas por el viento en la hierba alta o las ramas de los árboles. Olas de emoción, ondas de choque de explosiones, olas de personas manifestándose contra la arrogancia de la política, olas de dolor, olas de personas cruzando fronteras, olas de pasión y alegría...

CAIMAN

CUADERNOS DE CINE

EDICIÓN DIGITAL

Siempre al alcance de su mano

- Busque el texto que desea y márkelo como favorito
- Comparta textos en las redes sociales
- Guarde los recortes de lo que le interesa
- Lea o escuche los textos
- Amplíe el contenido para una mejor lectura



Ahora puede leer también **Caimán Cuadernos de Cine** en su ordenador (PC o Mac) y, si lo desea, descargarlo y llevárselo consigo a donde quiera que vaya en iPad, iPhone o todo tipo de dispositivos Android (tablet o smartphone).



SUSCRIPCIÓN ANUAL

11 números
(uno gratis)
EJEMPLAR
INDIVIDUAL
3,59 euros

35,99
euros

Suscríbase o haga su pedido en nuestra web:

www.caimanediciones.es

y también en:



**KIOSKO
Y MÁS**

EMPODERÍO (2025)

Lara Izagirre Garizurieta. Espainia / España. 50 min

 gaztelania

Barre eta konplizitate artean, emakume ijito talde batek sekuentziak inprobisatzen ditu Otxarkoagako Gizarte Etxeko gela batean. Goizeko argi leuna gortina moreen artetik sartzen da, eta haietako batek pelikula baten nondik norakoak azaltzen ditu, antzeppen tailer bat egiten ari diren emakume ijito batzuek hitz egiten duena. Errealitatea eta fikzioa nahastu egiten dira. Jolasa, dibertsioa, ahalduntzea eta sororitatea elkartzen dira euskal emakume ijitoenganako maitasun-gutuna izan nahi duen dokumental honetan. Zubi bat, kantu alai bat eta esku-zartak airean, istorioak (inprobisatuak eta asmatuak izan arren) elkarrengana hurbiltzeko behar ditugula gogorarazteko.



Entre risas y complicidad, un grupo de mujeres gitanas improvisan secuencias en un aula del Centro Cívico de Otxarkoaga. La luz suave de la mañana entra entre las cortinas moradas, mientras una de ellas destripa una película que habla de unas mujeres gitanas que hacen un taller de interpretación. La realidad y la ficción se mezclan. Juego, diversión, empoderamiento y sororidad se juntan en este documental que quiere ser una carta de amor a las mujeres gitanas vascas. Un puente, un canto alegre y unas palmadas al viento que nos recuerdan que las historias (aunque sean improvisadas e inventadas) son lo que necesitamos para acercarnos las unas a las otras.

MAITASUN ETA SAMURTASUN GUTUN BAT

Batzuetan bizitzak inoiz imajinatuko ez genituzkeen lekuetara eramaten gaitu. Uste dut horrela kontatu nahi izan dudala istorio hau. **Empoderío** dokumentala emakume pailazoen eta ijitoen artean zubiak sortzeko beharretik sortu da, barrearen eta antzeppenaren bidez. Uste dut zinema, eta bereziki antzezpena, tresna zoragarriak direla beste errealitate batzuk ezagutzeko eta elkarrengana hurbiltzeko.

Duela urtebete baino gehiago, antzeppen ikastaro bat ematen hasi nintzen Euskadiko Emakume Ijitoen Elkarte (AMUGE) kide batzuentzat. Naiara Carmona aktoreak eta biok saio batzuk prestatu genituen, eta haietan berez sortu zen dokumentalaren gidoia inprobisazioko ariketen bidez.

Eskema batekin eta inprobisazioari leku nabarmena utzita sortu da orain esku artean duzun proiektua. Otxarkoagako emakume ijitoen errealitatea modu dibertigarri eta argitsuan aurkezten eta hurbiltzen duen bilbotar kutsu handiko proiektua. Era berean, inprobisazioek errealitateetara hurbiltzen gintuzten. Antzeppenaren bidez haiek diren bezalaxe adierazteko askatasun horrek izaera alai eta dibertigarria eman dio dokumentalari.

Metazinemarekin ere aritu gara jolasean: zinemako kritikari bihurtuta, ikusten ari garen dokumental hau bera dute bertan hizpide. Horrela, ikus-entzuleekin sortzen den jolasak haiengana hurbiltzen gaitu eta haiekin enpatizatzen laguntzen digu.

Dokumentalaren zuzendari naizen aldetik, espero dut euskal emakume ijitoen historia eta irudikapen alternatibo bat sortu izana. Talde zoragarri batekin ehuntzen joan naizen maitasun eta samurtasun gutun bat izan daiteke, eta erakutsi dit elkarrengana hurbiltzen laguntzen diguten gauzak elkarrengandik bereizten gaituztenak baino askoz gehiago direla.

UNA CARTA DE AMOR Y CARIÑO

A veces la vida te lleva a lugares que nunca hubieras imaginado. Creo que así he llegado a querer contar esta historia. El documental **Empoderío** nace de la necesidad de crear puentes entre mujeres payas y gitanas a través de la risa y la actuación. Creo que el cine y en particular la actuación son herramientas maravillosas para conocer otras realidades y acercarnos las unas a las otras.

Hace más de un año comencé a impartir un curso de actuación para algunas mujeres gitanas de la Asociación de Mujeres Gitanas de Euskadi (AMUGE). La actriz Naiara Carmona y yo creamos unas sesiones en las que el documental se escribía a sí mismo a través de ejercicios de improvisación.

Con un esquema como guion y mucho espacio para la improvisación se ha ido creando el proyecto que ahora tenéis entre manos. Un proyecto muy bilbaíno que presenta y acerca la realidad de las mujeres gitanas de Otxarkoaga de una forma divertida y luminosa. A su vez las improvisaciones nos acercaban a las realidades. Esa libertad de ser ellas mismas a través de la actuación ha dado un carácter jovial y divertido al documental.

Asimismo hemos jugado al metacine: ellas mismas se convierten en críticas de cine y tienen como elemento de conversación el mismo documental que estamos viendo. El juego que se crea con los espectadores y espectadoras a través de este elemento nos acerca a ellas y nos ayuda a empatizar.

Como directora del documental espero haber creado una historia y una representación alternativa de las mujeres gitanas vascas, un documental que bien puede ser una carta de amor y cariño que he ido tejiendo con un equipo increíble y que me ha hecho descubrir que son muchas más las cosas que nos acercan que las que nos separan.

Lara Izagirre Garizurieta

SOLASALDIA / COLOQUIO

Lara Izagirre Garizurieta: Filmaren zuzendaria / Directora de la película
Filmaren protagonistak / Protagonistas de la película

igandea / domingo > apirilak 6 abril / 12:00

Victoria Eugenia Antzokia

librea gonbidapenarekin / gratis con invitación

haurrentzako zinema
cine infantil



ESERLEKU URDINA
BUTACA AZUL

GAUTENA
Gipuzkoako Autismo Elkartea
Asociación Guipuzcoana de Autismo



Lehiaketatik kanpo / Fuera de concurso

AZERIK ETA ERBIK BASOA SALBATZEN DUTE (Vos & Haas redden het bos, 2024)

Mascha Halberstad. Herbehereak-Belgika-Luxenburgo / Países Bajos-Bélgica-Luxemburgo. 73 min euskara

Basoan gauza arraroak gertatzen dira! Hontza desagertu egin da, arratoi bihurri batzuek izututa dauzkate auzokoak eta aintzira batek gainezka egin du, basoan bizi diren gure lagunak etxeak urpean utziz. Akaso Kastore megalomanoaren lana izan daiteke? Azerik eta Erbik deskubritu egin nahi dute. Beren lagunak onena aurkitu behar dute, Hontza, eta euren etxeak salbatu nahi dituzte. Baina horrek arriskuan jarriko du haien adiskidetasuna. Horrela hasten da zirraraz eta dibertsioz beteriko abentura.

¡En el bosque están ocurriendo cosas extrañas! Búho ha desaparecido, unas ratas traviesas tienen al vecindario aterrorizado y un lago se ha desbordado y está inundando las casas de nuestros amigos y amigas que viven en el bosque. ¿Podría ser que fuera obra del Castor megalómano? Zorro y Liebre quieren averiguarlo. Tienen que encontrar a su mejor amigo, Búho, y salvar sus hogares. Pero esto pondrá su amistad a prueba. Así comienza una aventura llena de emoción y diversión.



THE NEW YEAR THAT NEVER CAME

(Anul Nou care n-a fost, 2024)

Bogdan Mureșanu. Errumania-Serbia / Rumanía-Serbia. 138 min

🔊 errumaniera 🗨️ euskara, gaztelania

1989ko abenduaren 20an, Errumania iraultzaren atarian da. Kaleak manifestazioz josita daude, ikasleek artearen bidez egiten diote burla erregimenari, eta Urteberriko ikuskizunek Ceaușescu goraiatzaren dute. Hala ere, berogailurik gabe etxeetan hotzez bizi diren familiak gatazka pertsonalei eta nonahiko Polizia Sekretuari egin behar diete aurre. Itxuraz deskonektatutako sei bizitza ustekabearen gurutzatzen dira, erregimen komunista amiltzen den bitartean.



El 20 de diciembre de 1989, Rumania se encuentra al borde de la revolución. Las calles están llenas de manifestaciones, los estudiantes se burlan del régimen a través del arte y los espectáculos de Año Nuevo glorifican a Ceaușescu. Sin embargo, en la incomodidad de sus hogares sin calefacción, las familias se enfrentan a conflictos personales y a la omnipresente Policía Secreta. Seis vidas aparentemente desconectadas se cruzan de una forma inesperada al tiempo que el régimen comunista se derrumba.

CEAUȘESCUREN BUKAERAREN HASIERA

1989ko abenduaren 16tik 25era bitartean, Nicolae Ceaușescuren erregimenak behea jo zuen, Errumania osoan zehar zabaldutako herri-altxamendu baten erdian. Timișoarako hasierako protestetatik diktadorearen epaiketa eta exekuziora arte, egun gutxi batzuetan, errepresioa eta beldurra bizitzetik bloke komunistako diktadurarik gogorrenetako bat erortzen ikustera igaro zen herrialdea. Jarraian azaltzen da gertaera haien sekuentzia.

Abenduaren 16an, Errumaniako diktadoreak Timișoaran manifestatzen ari ziren herritar zibilen aurka tiro egiteko agindua eman zion Armadari. Manifestazio hura Hungariako gutxiengoko artzain protestante Lazlo Tokesen alde antolatu zen, erregimenarekin kritikoa zelako errepresaliatua. Hala, sarraski hark bizitu egin zuen matxinada; hurrengo egunetan berehala zabaldu zen herrialdeko beste toki batzuetara, eta 1.100 heriotza baino gehiago eragin zituen Estatuaren eskutik.

Abenduaren 21ean, Ceaușescuk ekitaldi herrikoi handi bat deitu zuen, indar erakustaldi bat eskaintzeko eta matxinadari azkena emateko. Hark espero ez bezala, jendetzaren oihu eta txistuek Batzorde Zentralaren eraikineko balkoitik ematen ari zen hitzaldia etetera behartu zuten. Ekitaldiaren berri jasotzen ari zen telebistak eten egin zuen emanaldia minutu batzuetan, eta milaka pertsona irten ziren kalera matxinadarekin bat egitera, Armadaren eta Securitatearen tiroen artean.

Abenduaren 22an, Armadak, manifestariekin bat egin ondoren, diktadorea eta haren emaztea atxilotu zituen, ihes egiten saiatzen ari zirenean.

1989ko abenduaren 25ean, Berlingo harresia erori eta aste gutxira, Nicolae eta Elena Ceaușescu fusilatu egin zituzten Errumanian, epaiketa sumarisimo baten ondoren, gizateriaren aurkako krimenak egotzita.

EL PRINCIPIO DEL FIN DE CEAUȘESCU

Entre el 16 y el 25 de diciembre de 1989, el régimen de Nicolae Ceaușescu se desmoronó, en medio de un levantamiento popular que se extendió por toda Rumanía. Desde las primeras protestas en Timișoara, hasta el juicio y ejecución del dictador, el país pasó en cuestión de días de la represión y el miedo a la caída de una de las dictaduras más férreas del bloque comunista. La secuencia de acontecimientos fue como sigue.

El 16 de diciembre, el dictador rumano había ordenado al Ejército abrir fuego contra la población civil que se manifestaba en Timișoara en apoyo a Lazlo Tokes, pastor protestante de la minoría húngara represaliado por ser crítico con el régimen. La masacre avivó la revuelta, que se extendió rápidamente a otras zonas del país en los días siguientes, y que se saldó con más de 1100 muertes a manos del Estado.

El 21 de diciembre, Ceaușescu convocó un gran acto popular, con el objetivo de ofrecer una demostración de fuerza y acabar con la revuelta. Para su sorpresa, los gritos y abucheos de la multitud le obligaron a interrumpir su discurso desde el balcón del edificio del Comité Central. La televisión que retransmitía el acto suspendió la emisión durante varios minutos, y miles de personas salieron a la calle a sumarse a la revuelta, a pesar de los disparos del Ejército y de la Securitate.

El 22 de diciembre, el Ejército, que ya se había unido a los manifestantes, detuvo al dictador y a su esposa mientras intentaban escapar.

El 25 de diciembre de 1989, pocas semanas después de la caída del muro de Berlín, Nicolae y Elena Ceaușescu fueron fusilados en Rumanía tras un juicio sumarisimo, acusados de crímenes contra la humanidad.

16060 egun (2024)

Iñaki Alforja, Iban Toledo. 20 min

🔊 euskara, gaztelania 🇬🇧 gaztelania



1980an, Batallón Vasco Español taldeak Jose Miguel Etxeberria bahitu eta desagerrarazi zuen. Bere anaia Eneko 15 urte zituen eta 44 urte daramatza bere hilotz-hezuraren bila. Poliziaren mertzenario batek gorpua harizti batean dagoela esan du, Mont-de-Marsan (Frantzia) herritik gertu. Eneko. Egia ote?

En 1980, el grupo Batallón Vasco Español secuestró e hizo desaparecer a Jose Miguel Etxeberria. Su hermano Eneko tenía entonces quince años y ya lleva 44 buscando su cadáver. Un mercenario policial ha dado una información que ubica el cuerpo en un robledal cerca de la localidad francesa de Mont-de-Marsan. ¿Eneko? ¿Será cierto?

Capitanes (2024)

Kevin Castellano, Edu Hirschfeld. 15 min

🇬🇧 gaztelania



Tentsioa eta agresitibatea nagusi diren Kopako finalerdi batean, futbol talde bateko bi kapitainen arteko sesioa sortu da, eta, azkenean, lehen mailako aldageletan ezkutatzen dena agerian geratzen da: futbolari homosexualen isiltasuna.

Durante una semifinal de Copa llena de tensión y agresividad, los dos capitanes de un equipo de fútbol mantienen una discusión que acaba revelando lo que se esconde en los vestuarios de primera división: el silencio de los futbolistas homosexuales.

EUSKAL FILM LABURREN MARATOIA MARATÓN DE CORTOMETRAJES VASCOS (125 min)

Azkena (2024)

Ane Inés Landeta, Lorea Lyons. 9 min

🔊 euskara 🇬🇧 gaztelania



Lorearen erreferenteak bere ama eta amona dira. Bi belaunaldi hauetan emakumeek amatasunaren inguruan bizi izan duten lotura behatzen du. Orain berari dagokio ama izan ala ez erabakitzea eta dauden galderei erantzunak bilatzea.

Lorea tiene como referencia a su madre y a su abuela. A través de estas dos generaciones observa el vínculo que la mujer ha vivido en torno a la maternidad. Ahora le toca a ella tomar la decisión de si ser madre o no y buscar respuestas a preguntas pendientes.

Errotatiba (2024)

Iratxe Fresneda. 8 min

🇬🇧 euskara, gaztelania



Gizakiak memoriaren hauskortasuna babesteko lekuak sortzen ditu. Pertsonak desagertu egiten dira, bizi izan zireneko eraikinak edota lan egin eta zoriotsu izan zireneko tokiak bezala. Aurpegi eta bizitza horiek, noizbait idatzizko oroimenaren parte izandakoak, desagertuko den oroimenarekin batera galduko dira, ezer ez delako betiko.

El ser humano crea lugares donde proteger la fragilidad de la memoria. Las personas desaparecen, como los edificios en los que habitaron o los lugares donde trabajaron y fueron felices. Esos rostros y esas vidas fueron alguna vez parte de la memoria escrita, una memoria que desaparecerá porque nada es para siempre.

Gure oilarra kanpoan da (2025)

Carlota Galilea. 18 min

🔊 euskara 🗣️ gaztelania




Hitz egin ezin daitekeenaren gainean eraikitako historia hurbila: Euskal Herriaren zauri irekia. Egungo Euskal Herriaren erretratua, iraganaren eta orainaren arteko bi norabideko harremanak aztergai dituen.

Una historia familiar erigida sobre aquello de lo que no se puede hablar: la herida abierta del pueblo vasco. Un retrato de la Euskal Herria actual en una indagación sobre las bidireccionales relaciones entre pasado y presente.

Patrimonio (2024)

Aitor Abio. 14 min

🔊 gaztelania, euskara 🗣️ gaztelania



Mikelek bere aita Karlosen enpresan lan egiten du. Konpainiak saltzea eta plantillaren erdia kaleratzea erabakitzen duenean, Mikel lankideen alde agertzen da. Bere asmoak onak diren arren, langileek sabotaje plana ezkutatzen diote.

Mikel trabaja en la empresa de su padre Carlos. Cuando la compañía decide vender y despedir a la mitad de la plantilla, Mikel se posiciona a favor de sus compañeros. A pesar de que sus intenciones son buenas, los trabajadores le ocultan su plan de sabotaje.

Locas del ático (2024)

Tamara García Iglesias. 16 min

🔊 gaztelania, frantsesa 🗣️ gaztelania, euskara



Marguerite Durasek sendatuko al gaitu erotasunetik? Izan daiteke eroa arimaz mutua den emakumea? Film honek, *casting* analogiko baten bidez, erotasunaren irudikapenak zeharkatzen ditu 20 eta 30eko hamarkadetako film mutuetan.

¿Puede Marguerite Duras curarnos de la locura? ¿Puede ser una loca aquella mujer que es muda de alma? Esta película a través de un *casting* analógico recorre las representaciones de la locura en las películas mudas de los años 20 y 30.

Zona Wao (2024)

Nagore Eceiza. 25 min

🗣️ gaztelania, euskara



Lehiaketatik kanpo / Fuera de concurso

Duela 50 urte baino gehiagoz geroztik, nazioko eta nazioarteko petrolio enpresek petrolio erauzten dihardute Amazoniatik, planetako biodibertsitate handienetik, eta, Ekuadorreko gobernu konplize dela, mehatxu bat dira komunitate indígenen bizitzarentzat. Sakrifizio Ereduak deitzen zaizkie.

Desde hace más de 50 años, empresas petroleras nacionales e internacionales extraen petróleo de la Amazonía con mayor biodiversidad del planeta, amenazando la vida de las comunidades indígenas con la complicidad del Gobierno ecuatoriano. Son las denominadas Zonas de Sacrificio.

Human
Rights
Film
Network

Connecting
human rights
film festivals
around the world

film

is a powerful medium
It can touch and **inspire**
audiences: those who
can **make a difference.**

A growing numbers of film festivals dedicated to the promotion of human rights are organised around the world. They cooperate in the Human Rights Film Network.

Connect?


humanrightsfilmnetwork.org

FOLLOWING HARRY (2024)

Susanne Rostock. AEB / EEUU. 90 min

🔊 ingelesa 🗣️ euskara, gaztelania

Dokumental honek Harry Belafonte mitikoaren bizitzako azken hamabi urteak kontatzen ditu, abeslari eta aktibistak justizia sozialarekin betidanik izandako konpromisoa nabarmenduta. Artisten eta aktibisten belaunaldi berri baten inspirazio-iturri izateko premia biziak bultzatuta, filmak leiho bat zabaltzen du Belafonteren lan publikora eta eskubide zibilen alde hark egindako borroka historikora, eta, aldi berean, unerik intimoenetan erretratatzeko du.



Documental que cuenta los últimos doce años de la vida del legendario Harry Belafonte, destacando el compromiso permanente del cantante y activista con la justicia social. Impulsada por su tremendo sentido de urgencia de inspirar a una nueva generación de artistas y activistas, la película ofrece una ventana a su trabajo público y a su histórica lucha por los derechos civiles al tiempo que lo retrata en sus momentos más íntimos.

HARRY BELAFONTE: MUSIKA, AKTIBISMOA ETA ARRAZA-SEGREGAZIOAREN AURKAKO BORROKA AEBN

Harry Belafonte, jatorri jamaikarreko abeslari afroamerikarra, garrantzi handiko figura izan zen XX. mendeko musikan eta arrazismoaren aurkako aktibismoan. 1927an jaio zen, Harlemen, New Yorken, eta 2023ko apirilean hil zen. Musikaren historian leku nabarmena du, hark uztartu baitzituen jazz, folka eta Karibeko erritmoak (50eko hamarkadan kalipsoa ezagutzera eman eta album bakarrarekin milioi bat kopia saldu zituen lehen artista izan zen). Ordea, agertokietan AEBko arraza-segregazioa salatzeke eta komunitate afroamerikarraren berdintasuna eskatzeko bere ahotsa eta ospea erabili izana da hark utzitako ondare ezabaezina.

Martin Luther Kingen gertukoa, eskubide zibilen aldeko mugimendua finantzatu zuen; 1963an Washingtoneko Martxa antolatzen lagundu zuen; espetxeratutako aktibistak askatzeko dirua bildu zuen, eta AEBko hegoaldean boto-emaile afroamerikarrak inskribatzen lagundu zuen, hauteskundeetan haiek parte hartzea galarazten zuten lege diskriminatzaileei aurre eginez. Segregazioari ere desafio egin zion, eta uko egin zion pertsona beltzei sartzen uzten ez zieten lokaletan aritzeari. Bere aktibismoak mugak gainditu zituen: Hegoafrikako *apartheid*a salatu zuen, Latinoamerikako kausak babestu zituen, eta Fidel Castro eta Nelson Mandela bezalako liderrekin kolaboratu zuen.

Belafontek ez zion inoiz bidegabekerien aurka ahotsa altxatzeari utzi, Ku Klux Klanaren mehatxuak eta errepresaliak jaso arren. Bere musika eta aktibismoa herrialde baten historia ezabaezinaren parte dira, non afroamerikarren aurkako poliziaren indarkeriak (1991n Rodney Kingek jasandotik hasi eta Trayvon Martin eta George Floyd-eraino) protestak eta *Black Lives Matter* bezalako mugimenduak piztu dituen, kulturaren, hezkuntzaren eta erresistentzia baketsuaren bidez arrazakeriaren aurka borrokatzeko.

HARRY BELAFONTE: MÚSICA, ACTIVISMO Y LUCHA CONTRA LA SEGREGACIÓN RACIAL EN EEUU

Harry Belafonte, cantante afroamericano de raíces jamaicanas, fue una de las figuras más influyentes en la música y el activismo antirracista del siglo XX. Nacido en 1927 en Harlem, Nueva York, y fallecido en abril de 2023, no solo pasó a la historia por sus logros musicales, fusionando jazz, folk y ritmos caribeños (popularizó el calipso en los años 50 y fue el primer artista en vender un millón de copias con un solo álbum). Su legado imborrable fue el de usar su voz y prestigio en los escenarios para denunciar la segregación racial en EEUU y exigir igualdad para la comunidad afroamericana.

Cercano a Martin Luther King, financió el movimiento por los derechos civiles, colaboró en la organización de la Marcha sobre Washington en 1963, recaudó fondos para liberar activistas encarcelados y ayudó a inscribir votantes afroamericanos en el sur de EEUU, retando las leyes discriminatorias que buscaban impedir su participación en las elecciones. También desafió la segregación, negándose a actuar en locales que no permitían la entrada a personas negras. Su activismo trascendió fronteras: denunció el *apartheid* en Sudáfrica, apoyó causas en América Latina y colaboró con líderes como Fidel Castro y Nelson Mandela.

Belafonte nunca dejó de alzar la voz contra las injusticias, pese a amenazas del Ku Klux Klan y represalias. Su música y activismo forman parte indeleble de la historia de un país donde la violencia policial contra los afroamericanos, desde Rodney King en 1991 hasta Trayvon Martin y George Floyd, ha desatado protestas y movimientos como *Black Lives Matter*, que luchan contra el racismo desde la cultura, la educación y la resistencia pacífica.

SOLASALDIA / COLOQUIO

Carmen de la Guardia Herrero: Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Historia Garaikideko katedraduna / *Catedrática de Historia Contemporánea de la Universidad Autónoma de Madrid*

Emilio Doménech: Politika estatubatuarrean espezializatutako kazetaria / *Periodista especializado en política estadounidense*

THE LEGEND OF THE VAGABOND QUEEN OF LAGOS (2024)

The Agbajowo Collective. Nigeria-Alemania-Hegoafrika-AEB /
Nigeria-Alemania-Sudáfrica-EEUU. 101 min

🔊 *yoruba, Nigeriako pidgin, egun, ingelesa*

⌵ *gaztelania*

Jawu ama gazte bat da. Ur gaineko bazter auzo batean bizi da, Lagos hiririaren ematen dion aintziraren ondoan. Egbaezen errege gerrari handiaren espirituaren eraginpean, erantzukizun izugarria hartu eta froga bat gainditu beharko du. Bere jendea arriskuan dago: funtzionario ustelak konspiratzen hasiak dira milaka pertsona beren etxeetatik botatzeko. Egbaezenen spirituak loro gris afrikar baten itxura hartzen du, eta gertaeren kate bat martxan jarrita, betiko aldatuko ditu Jawu eta bere komunitate osoa.



© The Agbajowo Collective

Jawu es una joven madre que vive en uno de los barrios marginales flotantes junto a la laguna que da nombre a la ciudad de Lagos. El espíritu del gran rey guerrero Egbaezen la ha marcado para que asuma una terrible responsabilidad y para que supere una prueba. El peligro amenaza a su gente, ya que funcionarios corruptos conspiran para desalojar a miles de personas de sus hogares. El espíritu de Egbaezen toma la forma de un loro gris africano y pone en marcha una cadena de eventos que cambiarán a Jawu y a toda su comunidad para siempre.

LAGOS ETA MUTURREKO HIRIGINTZA- EREDU NEOLIBERALA

Lagos hirian, Nigerian, ubide eta kokaleku flotatzaileen sare bat dago hedatua. Bertan, ur barruan, egurrezko hesolen gainean eraikitako etxe goratuak pilatzen diren. Makoko komunitatea, esaterako, “Venezia afrikarra” izenez ezaguna da.

2016ko urriaren 9an, Lagoseko estatuko gobernadoreak iragarri zuen 40 kokaleku informal inguru eraitsiko zirela; 300.000 pertsona bizi ziren leku haietan. 2016ko azarotik 2017ko apirilera bitartean, hiriko poliziak etxe uzte behartuak, masiboak eta bortitzak eraman zituen aurrera; 9 pertsona hil eta asko desagertu egin ziren.

Agintariak segurtasunarekin eta osasungarritasunarekin lotutako arazoak aipatzen zituzten. Hala ere, etxe huste haien atzean (2013az geroztik ekindakoak) nabaria zen Estatuko Gobernuak pentsatuta zuela higiezin eta hirigintzako garapen operazio handi bat burutzea, hiria Afrikako megalopoli eredu eta mundu mailako finantza eta merkataritza gune bihurtzeko.

Lagos da gaur egun Nigeriako motor ekonomikoa eta Afrikako hiririk jendetsuena. 24,5 milioi biztanle ditu (duela 17 urtez geroztik ez dago errolda ofizialik) eta horietatik, Amnesty Internationalaren arabera, % 68 pobreziaaren atalasearen azpitik bizi dira, egunean dolar bat baino gutxiagorekin, eta % 70 kokaleku informaletan.

Kokaleku horietan, pobrezia, pilaketa eta zerbitzu publikoen falta dira nagusi. Ez dago argirik, ez ur korronterik, ez saneamendurik. Hala ere, leku horietan ezarritako komunitateak erresilienteak, antolatutako eta adoretuak dira, eta metro gutxira luxuzko auzoez, etxe orratzez, yate amarratuez eta jatetxe eksklusiboez inguratuta bizi dira. Hala, egoera horrek agerian uzten du desberdintasunik lizunena.

LAGOS Y EL MODELO DE URBANISMO NEOLIBERAL EXTREMO

En la ciudad de Lagos, Nigeria, se extienden una red de canales y asentamientos flotantes, en los que se agolpan casas elevadas construidas sobre estacas de madera dentro del agua. La comunidad de Makoko es conocida como la “Venecia africana”.

El 9 de octubre de 2016, el gobernador del estado de Lagos anunció la demolición de cerca de 40 asentamientos informales, en los que habitaban 300.000 personas. Entre noviembre de 2016 y abril de 2017 se llevaron a cabo desalojos forzados, masivos y violentos por parte de la policía de la ciudad, con un saldo de 9 personas muertas y muchas desaparecidas.

Las autoridades aducían cuestiones de seguridad y de salubridad. Sin embargo, detrás de estos desalojos (que venían ocurriendo desde 2013), apenas se disimulaba una gran operación de desarrollo inmobiliario y urbanístico por parte del Gobierno estatal, para convertir la ciudad en un modelo de megalópolis africana y en un centro financiero y comercial a escala global.

Lagos es hoy en día la locomotora económica de Nigeria y la urbe más poblada de África. Posee 24,5 millones de habitantes (no hay censo oficial desde hace 17 años) de los que, según Amnistía Internacional, un 68% viviría por debajo del umbral de la pobreza, con menos de un dólar al día, y un 70% residiría en asentamientos informales.

Estos asentamientos están marcados por la pobreza, el hacinamiento y la falta de servicios públicos. No hay luz ni agua corriente ni saneamiento. Sin embargo, son comunidades resilientes, organizadas y vibrantes, que conviven a escasos metros con barrios de lujo, rascacielos, yates amarrados y restaurantes exclusivos, evidenciando la desigualdad más obscena.

PATRULLAJE (2023)

Camilo de Castro, Brad Allgood. Nikaragua-AEB / Nicaragua-EEUU. 83 min

🔊 *kriol, rama, gaztelania, ingelesa* 🇸🇰 *euskara, gaztelania*

Legez kanpoko abeltzainek Indiako Arto Erreserba Biologikoko (Nikaragua) baso birjinen eremu zabalak sarraskitzen diharduten bitartean, basozain indigenek eta afrikar ondorengoek kontserbazionista estatubatuar batekin eta ezkutuko kazetariekin elkar hartzen dute eremu babestuetan eta indigenen lurraldeetan haragiaren negozio iluna agerian uzteko. **Patrullajek** Erdialdeko Amerikako azken baso tropikaletako bat arriskuan jartzen duen mehatxuaren historia kontatzen du, baita basozain indigenek eta afrikar ondorengoek hura salbatzeko egindako ahalegin heroikoa ere.



Lehiaketatik kanpo / Fuera de concurso

Cuando los ganaderos ilegales diezman extensas áreas de los bosques vírgenes de la Reserva Biológica Indio Maíz (Nicaragua), los guardabosques indígenas y afrodescendientes se unen a un conservacionista estadounidense y periodistas encubiertos para exponer el oscuro negocio de la carne en las áreas protegidas y territorios indígenas. **Patrullaje** cuenta la historia de la amenaza que pone en riesgo uno de los últimos bosques tropicales de América Central y el esfuerzo heroico de los guardabosques indígenas y afrodescendientes por salvarlo.

PATRULLATZE KOMUNITARIOA, INDIGENEN BESTE ERRESISTENTZIA MODU BAT

Nikaraguako kostalde atlantikoan lau herri indigena daude —Miskituak, Mayangnak, Ramak eta Ulwak— eta bi herri tribal —Garifunak eta Kriolak edo Kreolak—. Rama eta Kriol herriak bizi diren lurraldearen jabetzaren baterako titularrak dira. Lurralde honek Indiako Arto Erreserba Biologikoaren % 80 estaltzen du: 350.000 hektareako eremua, animalien eta landareen dibertsitate zabala biltzen duena.

Herri horiek ingurumenari lotutako gatazka bortitz batean murgilduta daude aspaldi honetan. Nikaraguako beste leku batzuetatik etorritako legez kanpoko abeltzainak beren lurak okupatzen eta baso autoktonoa suntsitzen ari dira, ganadua elikatzekeo larrea landatzea eta ondoren AEBn salduko den haragia ekoiztea helburu. Ingurumenari dagokionez, kostua izugarria izaten ari da: milioika hektarea hartzen dituzten baso tropikal suntsituak eta biodibertsitate ordezkazina hondatua.

Giza eskubideen urraketa eta arpilatze horri aurre egiteko, ramek eta kriolek patruila komunitarioko programa bat jarri dute abian, legez kanpoko okupazio horiek geldiarazteko. Anbizio ekonomikotik eta ustelkeriatik defendatzeaz gain, beren komunitateen biziraupen kultural eta ekologikoa ziurtatzea ere lortu nahi dute horrela.

Bere memoria kolektiboan eta bere defentsan sortutako gizarte mugimenduen memorian, inork ez ditu ahazten herritarren 2018ko protestak herrialde osoan zehar. Ikasle eta aktibisten aurka erregimenak zabalduetako errepresioari erantzunez piztu ziren protesta haiek, Estatuari exijitzeko Indiako Arto Erreserbako sute bat itzal zezan. Daniel Ortegaren Gobernuaren erantzunak 355 hildako eta milaka zauritu, atxilotu eta erbesteratu utzi zituen.

PATRULLAJE COMUNITARIO, OTRA FORMA DE RESISTENCIA INDÍGENA

En la costa atlántica nicaragüense existen cuatro pueblos indígenas (Miskitus, Mayangnas, Ramas y Ulwas) y dos pueblos tribales (Garifunas, Krioles o Creoles). Los pueblos Rama y Kriol poseen un título de propiedad conjunto sobre el territorio donde habitan, que cubre el 80% de la Reserva Biológica Indio Maíz: espacio de 350.000 hectáreas con una amplia diversidad de animales y plantas.

Desde hace años, estos pueblos se encuentran inmersos en un violento conflicto medioambiental. Ganaderos ilegales, originarios de otros lugares de Nicaragua, están ocupando sus tierras y destruyendo el bosque autóctono, para plantar pasto con el que alimentar a su ganado y producir una carne que luego se venderá en EEUU. El coste está siendo medioambientalmente feroz: millones de hectáreas de bosques tropicales devastadas y de biodiversidad irremplazable destruida.

Para hacer frente a esta situación de violación de los derechos humanos y de saqueo, los rama y los kriol han puesto en marcha un programa de patrullaje comunitario con el objetivo de frenar estas ocupaciones ilegales. Buscan no solo defenderse de la ambición económica y la corrupción, sino también asegurar la supervivencia cultural y ecológica de sus comunidades.

En su memoria colectiva y en la del movimiento social surgido en su defensa, nadie olvida las protestas ciudadanas de 2018 por todo el país. Estallaron en respuesta a la represión del régimen contra estudiantes y activistas, que exigían que el Estado actuara para sofocar un incendio en la reserva Indio Maíz. La réplica del Gobierno de Daniel Ortega dejó más de 355 personas muertas y miles de heridas, detenidas y exiliadas.

SOLASALDIA / COLOQUIO

Anexa Alfred Cunningham: Miskitu indigena, giza eskubideak defendatzen dituen abokatua eta Nazio Batuetako aditua / *Indígena miskitu, abogada defensora de derechos humanos y experta de Naciones Unidas*

Gema Gutiérrez: Nazioarteko Justiziarako Guernica Zentroko (G37 Zentroa) abokatu elkartua / *Abogada asociada del Centro Guernica para la Justicia Internacional (Centro G37)*

PATRICE: THE MOVIE (2024)

Ted Passon. AEB / EEUU. 102 min

🔊 ingelesa 🗨️ gaztelania

Komedia erromantiko dokumentala, ezkontzetako berdintasunaren hurrengo faseari buruzko: desgaitasuna. Patricek, azkenean, bere bizitzako maitasuna aurkitu du, Garry, eta honek ere desgaitasun bat du. Ezkontzea da haien nahi bakarra, baina ezkontzen badira (edo elkarrekin biziko badira ere) murriztuta ikusiko dituzte bizirauteko behar dituzten gobernuaren onurak. Azterketa zorrotzaren pean egonda ere, konpromisoko zeremonia bat planifikatzea erabaki dute, beren etorkizuna arriskuan jar lezakeena.



Una comedia romántica documental sobre la siguiente fase de la igualdad matrimonial: la discapacidad. Patrice finalmente ha encontrado al amor de su vida, Garry, que también tiene una discapacidad. Lo único que quieren es casarse, pero si lo hacen (o incluso si se van a vivir juntos), los beneficios gubernamentales que necesitan para sobrevivir se verán recortados. A pesar del escrutinio al que están sometidos, deciden planificar una ceremonia de compromiso que podría poner en riesgo todo su futuro.

DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN ARTEKO EZKONTZA: AEBN PREZIOA DUEN ESKUBIDEA

Estatu Batuetan ezkontzea erabakitzen duten pertsona desgaituek, kasu askotan, asmo hori burutik kentzera eramaten duten errealitate bati egin behar izaten diote aurre. Ezkontzeko eskubidea aitortuta duten arren, eskubide horrek desgaitasunagatiko prestazioak nabarmen murriztea edo etetea dakar, kontuan hartuta funtsezkoak direla beren independentzia eta ongizaterako. AEBn 9 milioi pertsona inguru dira desgaitasuna dutenak, eta horietatik 8 milioi Gizarte Segurantzaren mende daude, zeinak osasun laguntza ere bermatzen dien. 2025eko urtarrilean, alderdi demokratek eta errepublikanoek araua aldatzea erabaki zuten, ezkondu ondoren prestazioak batera kalkula ez zitezen. Gobernu aldaetarekin, ordea, bertan behera geratu da ekimena.

Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazioarteko Konbentzioak (CRPD ingelesezko sigletan) 2008tik indarrean eta 192 herrialdek berretsia (horien artean Espainiak, baina ez Estatu Batuak), historikoki urratutako eskubideak babesten ditu, tartean ezkontza, familia bizitza eta ugalketa.

Euskadin, Espainiako estatuko gainerako lekuetan bezala, Pertsona Desgaituen Eskubideei buruzko 2013ko Lege Orokorra CRPDra egokituz joan da, hainbat erreformaren bidez. Zehazki, 4/2017 Legeak zenbait lege-oztopo ezabatu zituen desgaitasuna duten pertsonen arteko ezkontzan laguntzeko. Beste erreforma batek, 2021ean, legeria zibila eta prozesala erreformatu zituen, haien ahalmen juridikoa bermatzeko, eta hartara tutoretza ezabatu eta laguntzak sustatu zituen, desgaituak, bestek beste, ezkontzeko duen borondatean oinarrituta.

Euskadin, biztanleriaren % 6,3k (138.000 pertsona inguru) desgaitasunen bat dute.

MATRIMONIO DE PERSONAS CON DISCAPACIDAD: UN DERECHO QUE TIENE PRECIO EN EEUU

Las personas con discapacidad que deciden casarse en Estados Unidos se enfrentan a una realidad que, en muchos casos, les disuade. Aunque su derecho al matrimonio está reconocido, contraerlo implica una drástica reducción o suspensión de las prestaciones por discapacidad que reciben, esenciales para su independencia y bienestar. En EEUU hay alrededor de 9 millones de personas con discapacidad, de las cuales 8 millones dependen de la Seguridad Social, que también les garantiza asistencia sanitaria. En enero de 2025, los partidos demócrata y republicano acordaron modificar la norma para que las prestaciones no se calcularan de manera conjunta tras el matrimonio. Sin embargo, con el cambio de gobierno la iniciativa ha decaído.

La Convención Internacional sobre los Derechos de las Personas con Discapacidad (CPRD, por sus siglas en inglés), en vigor desde 2008 y ratificada por 192 países (entre ellos España, pero no Estados Unidos), protege derechos históricamente vulnerados, como el matrimonio, la vida familiar y la procreación.

En Euskadi, al igual que en el resto del Estado español, la Ley General de Derechos de las Personas Discapacitadas de 2013 se ha ido adecuando al CPRD a través de diferentes reformas. En concreto, la Ley 4/2017 eliminó algunos obstáculos legales para favorecer el matrimonio entre personas con discapacidad. Otra reforma, en 2021, reformó la legislación civil y procesal para garantizar su capacidad jurídica, eliminando la tutela y promoviendo apoyos basados en la voluntad de la persona discapacitada para, entre otras cosas, casarse.

En Euskadi, el 6,3% de la población (unas 138.000 personas) tiene algún tipo de discapacidad.

LEIHOA / VENTANA



ÉRAMOS TAN FLACOS (2024)

Carlos Castro. Argentina. 80 min

gaztelania

90eko hamarkadaren erdialdea, La Platako ikasleen hirian. Bizitza unibertsitarioarekin zoratuta dagoen gazte batek dena erregistratzen du VHS kamera batekin. Goi Mailako Hezkuntzari buruzko Legearen aplikazioagatik ikasleek gobernuarekin duten konfrontazioaren testuingurua da, eta militantzia unibertsitarioaren hasiera, historiaren amaiera aldarrikatzen duten politika neoliberalari aurre egiten.



Lehiaketatik kanpo / Fuera de concurso

Mitad de la década de los 90 en la ciudad estudiantil de La Plata. Un joven maravillado con la vida universitaria registra todo con una cámara VHS. Es el contexto de la confrontación de los estudiantes con el Gobierno por la aplicación de la Ley de Educación Superior y el comienzo de una militancia universitaria que resiste las políticas neoliberales que pregonan el fin de la historia.

ARGENTINAKO KRISI SOZIALA (GAUR) BIRPENTSATZEN

Laurogeita hamarrekoko hamarkadako politika neoliberalak Argentinako gizartean utzitako arrasto sakonei buruz hausnartu nahi du elkarrizketa honek, haien ondorioek oraindik ere eragina baitute gaur egun. Carlos Menem gobernua lehendik ezarritako erreformek funtsezko sektoreak desregularizatu eta pribatizatu zituzten, eta 2001ean eztanda egin zuen krisi soziala ekarri zuten. Hezkuntzaren merkantilizazioaren aurkako ikasleen borrokak eta eredu neoliberalaren aurkako protestak erresistentziaren adibide argiak izan ziren, eta gaur egun berriz ere ari dira aktibatzen Javier Mileiren gobernuak ezarritako doikuntza-politiken aurrean.

Mileik, bere aurretik Menemek egin zuen bezala, ekonomiaren sektore kontzentratuei mesede egiten dien eredu ekonomikoa sustatzen dihardu, lan- eta gizarte-eskubideak ahultzen dituena. Politika horiek errepikatzeak agerian uzten du laurogeita hamarrekoko hamarkadatik bere horretan jarraitzen duen tentsio sozialen zikloa, eta horrek ekarri du belaunaldi berriak, bizitza eta, bereziki, hezkuntza merkantilizatzen jarraitzen duen sistema bati aurre egitea. Testuinguru horretan, unibertsitate publikoaren defentsa eta neoliberalismoaren aurkako borroka dira oraindik ere erresistentzia sozialaren funtsezko osagaiak.

Solasaldi honek gonbidatu egiten gaitu *Éramos tan flacos* filmaren nazioarteko estreinaldiaren bidez birpentsatzera nola doikuntza- eta pribatizazio-politikek desberdintasun sozial berberak erreproduzitzen jarraitzen duten, eta nola neoliberalismoaren aurkako borroka historikoek funtsezkoak izaten jarraitzen duten gizarte bidezkoago baten eraikuntzan.

REPENSANDO LA CRISIS SOCIAL ARGENTINA (HOY)

Este diálogo busca reflexionar sobre las profundas huellas que dejaron las políticas neoliberales de los noventa en la sociedad argentina, cuyas consecuencias aún afectan a la actualidad. El Gobierno de Carlos Menem implementó reformas que desregularizaron y privatizaron sectores clave, generando una crisis social que culminó en el estallido de 2001. Las luchas estudiantiles contra la mercantilización de la educación y las protestas en rechazo al modelo neoliberal fueron ejemplos claros de resistencia, que hoy se reactivan frente a las políticas de ajuste implementadas por el Gobierno de Javier Milei.

Milei, al igual que su antecesor Menem, promueve un modelo económico que favorece a los sectores concentrados de la economía y socava los derechos laborales y sociales. La repetición de estas políticas evidencia un ciclo de tensiones sociales que se mantiene intacto desde los noventa, con nuevas generaciones enfrentando un sistema que sigue mercantilizando la vida, y especialmente la educación. En este contexto, la defensa de la universidad pública y la lucha contra el neoliberalismo siguen siendo elementos clave de la resistencia social.

Este coloquio invita a repensar, a través del estreno internacional del film *Éramos tan flacos*, cómo las políticas de ajuste y privatización continúan reproduciendo las mismas desigualdades sociales, y cómo las luchas históricas contra el neoliberalismo siguen siendo centrales en la construcción de una sociedad más justa.

Leandro Martínez

Festival Internacional de Cine de Derechos Humanos de Argentina

SOLASALDIA / COLOQUIO

Leandro Martínez: Argentinako Giza Eskubideen Nazioarteko Zinemaldiko ekoizle nagusia / *Productor general del Festival Internacional de Cine de Derechos Humanos de Argentina*

Josefina L. Martínez: Kazetari eta idazle argentinarra, feminismoari eta gizarte-mugimenduei buruzko hainbat libururen egilea / *Periodista y escritora argentina, autora de varios libros sobre feminismo y movimientos sociales*

HOME GAME (2024)

Lidija Zelović. Herbehereak / Países Bajos. 98 min

🔊 *nederlandera, serbokroaziera* 🗣️ *gaztelania*



Lidija Zelovićek bere familia erretratatzeko jardun du 1993an Herbehereetara lekualdatu zenetik, gerrak suntsitutako Sarajevoko beren etxetik ihes egin zutenetik. Zelovićen saiakera zinematografiko honek migratzaile guztiek bizi duten dualtasuna azaltzen du: Zer da etxea? Zinemagileak Herbehereetako gertaera sozial eta politiko disruptiboak uzten ditu agerian, bere sorterritik, banandutako Jugoslaviatik ezagutzen dituenak. Bere familiaren artxibo filmikoan oinarrituta, Zelovićek etxeko eszenak eta Herbehereetako gertaera politikoak tartekatzen ditu; gero eta handiagoa den polarizazio soziala, gizartean gero eta handiagoa den ezinegona, eta ultraeskuinaren politika erradikala boterearen erdian kokatu izanaren onarpena.

Lidija Zelović retrata a su familia, desplazada a los Países Bajos en 1993, cuando huyeron de su hogar en Sarajevo, devastado por la guerra. El ensayo cinematográfico de Zelović expone la dualidad con la que viven todos los migrantes: ¿qué es el hogar? La cineasta llama la atención sobre los acontecimientos sociales y políticos disruptivos en los Países Bajos, que reconoce de su (desmembrada) Yugoslavia natal. Basándose en el archivo filmico de su familia, Zelović alterna escenas en casa con eventos políticos en los Países Bajos, la polarización social cada vez mayor, el creciente malestar en la sociedad y la aceptación de la política radical de la ultraderecha en el centro del poder.

BALKANETAKO GERRA HERBEHEREETAKO ISPILUAN

1991. urtea da. Esloveniak eta Kroaziak independentziaren aldarrikapen unilaterala egin dute, eta gogor erantzuten du Jugoslaviako gobernua. Balkanetako Gerra (1991-1995) deiturikoa hasten da; bere ondorioz 130.000 pertsona baino gehiago hiltzen dira eta 2 milioi beren etxeetatik ihes egin behar izaten dute.

Gerraren gertakari odoltsuenen artean, Srebrenicako genozidioa 1995eko uztailan gertatzen da, indar serbobosniarrek, Ratko Mladićen agindupean, Srebrenicako hiria hartu eta 8.000 gizon bosniar musulman baino gehiago hiltzen dituztenean. Srebrenica, NBEk Bosniako zibilentzat “eremu seguru” izendatua sarraskia gertatu baino bi urte lehenago, Herbehereetako kasko urdinen (Dutchbat) babespean dago une horretan.

24 urte luzeren ondoren, 2019ko uztailan, Holandako Auzitegi Gorenak berretsi egiten du Herbehereetako estatua izan zela neurri batean heriotza haietako batzuen erantzule. Zehazki, Bosniako 350 gizon musulmanen heriotzarekin lotutako sententzia da. Sarraskian, NBEren Potočariko basean babestu ziren haiek, baina kasko urdinek kanporatu egin zituzten bertatik. Beren amak eta emazteak, Srebrenicako Amak elkartearen bidez, prozesu judiziala hasi zuten ondoren. Azken epaiak kalte finantzarioen % 10 erreklamatzeko eskubidea ematen die senideei, iriztean biktimek bizirik irauteko probabilitatea % 10ekoa izango litzatekeela, baldin eta Herbehereetako soldaduek base militarrean geratzen utzi izan baliete.

Gaur egun, Geert Wildersen eskuin muturreko alderdiak gidatzen du Herbehereetako gobernu koalizioan: amnesia historikoaren erakusgarri kezagarria.

LA GUERRA DE LOS BALCANES EN EL ESPEJO NEERLANDÉS

Corre el año 1991. Eslovenia y Croacia realizan una declaración unilateral de independencia, que es contestada con gran dureza por el Gobierno yugoslavo. Comienza la llamada Guerra de los Balcanes (1991-1995), en la que mueren más de 130.000 personas y 2 millones tienen que huir de sus casas.

De entre sus episodios más sangrientos, el genocidio de Srebrenica ocurre en julio de 1995, cuando las fuerzas serbobosnias, bajo el mando de Ratko Mladić, toman la ciudad de Srebrenica y asesinan a más de 8.000 varones bosnios musulmanes. Srebrenica, que había sido declarada por la ONU “zona segura” para los civiles bosnios dos años antes de la masacre, se encontraba en esos momentos bajo la protección de los cascos azules neerlandeses (Dutchbat).

Tienen que pasar 24 años para que, en julio de 2019, el Tribunal Supremo de Holanda confirme que el Estado neerlandés fue parcialmente responsable de algunas de aquellas muertes. Concretamente, la sentencia se refiere a la muerte de 350 hombres musulmanes bosnios que, durante la masacre, habían buscado cobijo en la base de la ONU en Potočari, pero fueron expulsados por los cascos azules. Sus madres y esposas, reunidas en la asociación Madres de Srebrenica, iniciaron tiempo después el proceso judicial. El fallo final concede a los familiares el derecho a reclamar el 10% de los perjuicios financieros, al estimar que las víctimas habrían tenido un 10% de posibilidades de sobrevivir si los soldados holandeses les hubiesen permitido quedarse en la base militar.

En la actualidad, el partido de extrema derecha de Geert Wilders lidera el Gobierno de los Países Bajos en coalición: preocupante muestra de amnesia histórica.

LA HISTORIA DE SOULEYMANE

(L'Histoire de Souleymane, 2024)

Boris Lojkine. Frantzia / Francia. 93 min

🔊 frantsesa, peul, malinké 🗣️ euskara, gaztelania

Parisko kaleetatik janaria banatzeko pedalei eragin bitartean, Souleymane berriro ari da bere historia bizitzen. Bi egun barru elkarriketatu izango da asiloa eskatzeko, hori baita paperak lortzeko gakoa. Baina Souleymane ez dago horretarako prestatuta.



© Unité

Mientras pedalea por las calles de París para repartir comida, Souleymane repite su historia. En dos días deberá pasar la entrevista de solicitud de asilo, clave para obtener los papeles. Pero Souleymane no está preparado.

PREKARIETATEA ETXEAN: PAPERIK GABEKO RIDER MIGRATZAILEAK

Rider terminoa (oraindik) RAEn agertzen ez den arren, hezurmamitzen dutenak nonahi eta ordu oro dabilta gure kaleak zeharkatzen. Banatzaile horiek bizikletan edo motoan ibiltzen dira hirietan, eskaerak etxez etxe eramaten. Autoak eta semaforoak saihesten ikusten ditugu, minutu bakoitza garrantzitsua baita haientzat.

Askok arauzko kontratuekin lan egiten dute: 2024ko azaroan, EBk 2024/2831 Zuzentaraua (EB) onartu zuen haien lan-baldintzak hobetzeko. Kalkuluen arabera, 2025ean, Europan 43 milioi pertsona enplegatuko dira plataforma digitaletan (garraioa jardueretarako, etxe zerbitzuetarako eta elikagaien banaketarako). Rideri eta Espainiari mugatutako datu bat Glovok eman zuen 2024an, 15.000 banatzaile soldatapeko gisa kontratatuko zituela iragartzean.

Hala ere, zifra horietan ez dira sartzen egoera irregularrean dauden migratzaileak, Rider Legetik kanpo daudenak, ez dutelako lan egiteko baimenik, ez besteren kontura, ez autonomo gisa. "Paperik gabeak" deitzen zaie. Kontratatu dituen plataforma digitalera sartzeko, alokatutako kontuak erabiltzen dituzte, eta horien truke 250 euro ordaintzen dituzte astero. Kontu horiekin, 16 orduko lanaldietan jarduten dute egunero, babesik gabe abusu eta istripuen aurrean, ikusezinak baitira Gizarte Segurantzarentzat. Identitatearen egiaztapen-sistemei une oro iseka egitearen presiopean lan egiten dute, eta logaritmoen presioaren pean ere; azkar aritzen ez badira penalizatu egiten dituzte. Kalkuluen arabera, Espainiako estatuan, hiru riderretik bi migratzaileak dira.

Ekuazioaren beste poloan azken kontsumitzailea dago, kexu denean bere eskaera atzerapenarekin edo zimurtuta iritsi bada. Kexu da, bere riderrak dituen lan-baldintzak ezagutzen ez dituelako; edo ezagututa ere, ezikusia egitea aukeratzen du.

PRECARIEDAD A DOMICILIO: RIDERS MIGRANTES SIN PAPELES

Aunque el término *rider* no figura (todavía) en la RAE, quienes lo encarnan están por todas partes y a todas horas en nuestras calles. Son repartidores que, en bicicleta o moto, recorren las ciudades entregando pedidos a domicilio. Los vemos esquivando coches y semáforos, porque cada minuto cuenta.

Muchos trabajan con contratos en regla: en noviembre de 2024, la UE adoptó la Directiva (UE) 2024/2831 para mejorar sus condiciones laborales. Se estima que en 2025 en Europa habrá 43 millones de personas empleadas en plataformas digitales (para actividades de transporte, servicios domésticos y reparto de alimentos). Un dato acotado a los *riders* y a España es el que daba Glovo en 2024, al anunciar la contratación de 15.000 repartidores como asalariados.

Sin embargo, estas cifras no incluyen a los migrantes en situación irregular, excluidos de la llamada Ley Rider porque no tienen permiso para trabajar, ni por cuenta ajena ni como autónomos. Se les dice "sin papeles". Para acceder a la plataforma digital que les contrata, usan cuentas alquiladas por las que pagan 250 euros semanales. Con ellas operan, invisibles para la Seguridad Social, desprotegidos ante abusos y accidentes, en jornadas de 16 horas. Trabajan bajo la presión de burlar a cada rato los sistemas de verificación de identidad y la presión de los logaritmos, que les penalizan si no son rápidos. Se estima que dos de cada tres *rider*s en el Estado español son migrantes.

En el otro polo de la ecuación está la persona consumidora última, cuando protesta si su pedido llega con retraso o arrugado. Se queja porque desconoce las condiciones laborales de su *rider*; o las conoce y opta por mirar hacia otro lado.

SOLASALDIA / COLOQUIO

Felipe Corredor Álvarez: Riders x Derechos erakundeko bozeramailea / *Portavoz de Riders x Derechos*

Amaia Prieto: Nafarroako Unibertsitate Publikoko Soziologia eta Gizarte Lan Sailako irakaslea / *Profesora del Departamento de Sociología y Trabajo Social de la Universidad Pública de Navarra*

Aurkeztuta / Presentada por



ALMA DEL DESIERTO (2024)

Mónica Taboada-Tapia. Kolonbia-Brasil / Colombia-Brasil.
87 min

🔊 wayuunaiki, gaztelania 🇪🇸 gaztelania

La Guajirako (Kolonbia) paisaia idorretan, Georginak, bere bizitzako hirugarren ekinaldian den emakume wayuu transgeneroak, badaki bere denbora amaitzen ari dela, eta bere bizitza aldatu nahi du. Ezer galtzekorik gabe, familiarekin berriz elkartzea da bere asmoa, Kolonbiako burokrazia ilunetik kanpo bizirauten duena. Zauri irekien, oroitzapen eta distantzia geografiko eta emozional ezagutezinen erdian, Georginak eta bere jendeak nahikoa dela diote. Erresilientzia, itxaropen eta justiziaren aldeko borrokaren istorio bat da hau.



En los áridos paisajes de La Guajira, Colombia, Georgina, una mujer wayúu transgénero en el tercer acto de su vida, sabe que su tiempo se acaba y quiere cambiar su vida. Sin nada que perder, se propone reencontrarse con su familia, que sobrevive al margen de la opaca burocracia colombiana. En medio de heridas abiertas, recuerdos y distancias geográficas y emocionales insondables, Georgina y su gente coinciden en que ya es suficiente. Esta es una historia de resiliencia, esperanza y de lucha por la justicia.

TRANSEXUALITATEA ETA INDIGENISMOA KOLONBIAN

Historian zehar, komunitate indigena askotan existitu eta onartu izan dira trans identitateak. Dokumentatuta dago antzinako herri askok, kolonizatu aurretik, onartu egiten zituztela sexu- eta genero-aniztasuna eta gaur egun aldakortzat hartzen diren rolak. Hala ere, kolonizazioak eta kanpoko arau erlijioso edo kulturalen inposaketak baztertu egin zuten haien aintzatespena. Gaur egun, herrialde askotan, trans indigenek bazterkeria bikoitzari egiten diote aurre: beren genero-identitateagatik eta beren sustraiengatik.

Adibide bat Kolonbian ikusten dugu. Legalki, herrialde horretan, 2015ean 1227 dekretua aldarrikatu zenetik, nahikoa da notario-deklarazio bat herritartasun-zedulako "sexu" laukia aldatzeko. Hala ere, dekretua gorabehera, trans pertsonen prozedura hori eskatzea eragozten dieten oztopoak izugarriak dira oraindik, batez ere emakume indigenentzat. Zailtasun idiomatikoei bazterketa eta jazarpena gehitu behar zaizkie beren komunitateetako kideengandik, kontuan izanik haietan matxismoa eta transfobia jasanezinak izan daitezkeela.

Jazarpen horri erantzunez, 2023ko martxoan, trans emakume indigenen talde batek, Risaralda departamentuko lekualdatze behartuaren biktimak, beren dokumentuetan aldaketa doan egin ahal izatea lortu zuen Herriaren Defentsa Erakundeak. Neurria herrialde osora zabaldu zen. Era berean, azken urteotan lider eta erakunde indigena transak sortu dira, eta borrokan ari dira beren eskubideak aitortuak izan daitezen, bai beren komunitateetan, bai eremu nazionalean. Horietako bat Wërapara da, artearen bidez aldarrikatzen duena aitorten hori.

TRANSEXUALIDAD E INDIGENISMO EN COLOMBIA

A lo largo de la historia, las identidades trans han existido y han sido aceptadas en numerosas comunidades indígenas. Está documentado que muchos pueblos ancestrales, antes de ser colonizados, admitían la diversidad sexual y de género y los roles que hoy se describen como fluidos. Sin embargo, su reconocimiento fue marginado por la colonización y la imposición de normas ajenas, religiosas o culturales. Hoy en día, en muchos países, las personas trans indígenas enfrentan una doble exclusión: por su identidad de género y por sus raíces.

Un ejemplo lo vemos en Colombia. Legalmente, en este país, desde la promulgación del decreto 1227 en el año 2015, basta con una declaración notarial para modificar la casilla de "sexo" en la cédula de ciudadanía. Sin embargo, a pesar del decreto, las barreras de acceso que impiden a las personas trans solicitar este procedimiento siguen siendo enormes, en especial para las mujeres indígenas. A las dificultades idiomáticas, se suman la marginación y el acoso por parte de miembros de sus comunidades, en las que el machismo y la transfobia pueden llegar a ser insostenibles.

En respuesta a este acoso, en marzo de 2023 la Defensoría del Pueblo consiguió que un grupo de mujeres indígenas trans, víctimas del desplazamiento forzado del departamento de Risaralda, pudieran realizar el cambio en sus documentos de manera gratuita. La medida se extendió a todo el país. Asimismo, en los últimos años, han surgido lideresas y organizaciones indígenas trans que están luchando por el reconocimiento de sus derechos, tanto dentro de sus comunidades como en el ámbito nacional. Una de ellas es Wërapara, que lo reivindica a través del arte.

FLYING HANDS (2024)

Paula Iglesias, Marta Gómez. Espainia / España. 78 min

🔊 *urdua, balti, ingelesa, zeinu-hizkuntza*

🔊 *euskara, gaztelania*

Karakorumeko mendilerroan, Pakistanen, Aniqá Banok neskata gor bat erditzen du, Narjis. Ordura arte ez zuen neska haiekiko gutxiespenaren eta estigmaren berri, ez eta haien existentziaren beraren berri ere, ezkutatuta baitzeuden beren familien lotsagatik. Hamasei urte geroago, Narjisek amaren egunkariak irakurtzen ditu. Bertan amak kontatzen du zer oztopo gainditu behar izan dituen, bai pertsonalak, bai sozialak, mendeetan zehar bizitza bete bat izatea eragozten zitzaion kolektibo baten duintasuna eta eskubideak defendatu nahi izateagatik.



En plena cordillera del Karakórum, en Pakistán, Aniqá Bano da a luz a una niña sorda, Narjis. Hasta entonces desconocía no solo el rechazo y estigma hacia estas niñas, sino su propia existencia, ya que permanecían ocultas por la vergüenza de sus familias. Dieciséis años después, Narjis lee los diarios de su madre, donde narra los obstáculos, tanto personales como sociales, que ha debido superar por querer defender la dignidad y derechos de un colectivo que llevaba siglos condenado a no poder tener una vida plena.

BELARRIAK BAINO ZERBAIT GEHIAGOREKIN ENTZUTEA

Pakistango Baltistan eskualdean hainbat hamarkadatan garapen eta ahaluntze proiektuak babestu eta bultzatzen diharduen Baltistan Fundazioaren bidez ezagutu genuen Aniqaren historia.

Berehala ikusi genuen historia hura kontatu beharra zegoela. Neskato ginenean gure izena kendu izan baligute, gaur egun nortzuk eta nolakoak izango ginatekeen hausnartzera bultzatu gintuen. Inolako hezkuntzarik jaso izan ez bagenu, ez hezkuntza hori eskuratu ezin genuelako, eskubiderik ez genuelako baizik. Inork ez baligu komunikatzen irakatsi eta isiltasunean bizi beharko bagenu betiko. Lotsagatik gizartetik aparte eta ezkuturik bizi izan bagina. Zergatik? Gorrak jaiotzeagatik.

Horixe gertatuko zitzaion Narjisi. Aniqak, bere amak, bere eskubideen alde borrokatu izan ez balu. Amaginarrebaren hitzak hauek izan ziren: *“Ez kezkatu neskato gor bat izan duzulako, neskame bat irabazi baituzu”*. Aniqak bere alabaren isiltasuna entzuten jakin zuen. Guk berari entzun nahi izan genion.

Eskuak burura eramaten ditugu, milaka kilometrora gorrek ez dituztelako eskubide berberak. Baina, nola tratatzen dira dibertsitateak gugandik metro gutxira? Hausnarketa horrek proiektu honi aurre egiten lagundu digu, batzuetan, emakume izanda ere, oharkabean erabiltzen diren paternalismoak baztertuta. Aniqari esker jabetu gara oztopo asko daudela, ez soilik fisikoak. Karakorumeko mendietako isiltasunak belarriekin baino zerbait gehiagorekin entzuten laguntzea da gure nahirik biziena.

ESCUCHAR CON ALGO MÁS QUE LOS OÍDOS

Conocimos la historia de Aniqá a través de la Fundación Baltistán, quienes han apoyado e impulsado durante décadas proyectos de desarrollo y empoderamiento en la región de Baltistán en Pakistán.

Enseguida sentimos que esta historia debía ser contada. Nos hizo reflexionar sobre quiénes y cómo seríamos hoy si nos hubiesen quitado nuestro nombre cuando éramos niñas. Si no hubiésemos recibido ningún tipo de educación, no porque no pudiésemos acceder a ella sino porque no teníamos derecho. Si nadie nos hubiese enseñado a comunicarnos y tuviésemos que vivir para siempre en el silencio. Si hubiésemos vivido escondidas y apartadas de la sociedad por vergüenza. ¿Por qué? Por nacer sordas.

Esto es lo que le hubiese pasado a Narjis si Aniqá, su madre, no hubiese luchado por sus derechos. En palabras textuales de su suegra: *“no te preocupes por haber tenido una niña sorda, has ganado una sirvienta”*. Aniqá supo escuchar el silencio de su hija. Nosotras quisimos escucharle a ella.

